

pergolari

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2012ko urtarrila / 9. zenbakia



Goazen Ikastolara!

EGUN BAT IKASTOLAN



OTA-RIK GABEKO PARKING-A!



BIZI-BIZI BIZIKLETAN IKASTOLARA!



GURASOAK LANEAN ETA GU JOLASEAN!

Ikasmaterialaren alorrean, ikastolak sortutakoak dira garai bateko SAIOKA, HAURTXOA, AXELKO, OTSOKO, BELEKO...; eta oraindik orain, pedagogia integralaren bidetik, beste hauek argitaratu ditu: URTXINTXA, TXANELA, OSTADAR...



HIZKUNTZA ERE HEZKUNTZA DA!



Доброго ранку

وعليكم السلام

"EGUN ON", NOLA ESATEN DA ZUEN HIZKUNTZAN?




LASAI AMA, EZ NEGARRIK EGIN!

NI BAKARRIK NOA IKASTOLARA!



Hizkuntzen tratamenduaren inguruan, 1991-92 ikasturtean, Ikastolok Eleanitz proiektua jarri genuen martxan. Betiere euskara ardatz hartuta, ingelesa 4 urtetik hasita irakasten zaie ikasleei, metodologia komunikatiboaren bidez. Hala, DBH-3. mailatik aurrera, irakasgai oso bat ingelesez landu ahal izango dute.



PULAMENTU TTANTTO BAT IZANGO BALU...!



Teknologia (IKT) berriei dagokienez, geletan erabiltzen diren CD-ROM eta programa didaktiko guztiak ikastolak berak sortu ditu. Horietako askok nazio mailako sariak jaso dituzte, zenbaitek nazioartekoak ere bai. Gainera, gaur egun hain ohikoak diren *mini-portatilak* ikastolok geletan erabilgarri jarri genituen 2007-08 ikasturtean, IKASYS proiektuaren bidez.





Gure ikasleak Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntzan trebatu nahi ditugu, eta proiektu berritzaile hori jada martxan jarri dugu. Baina, zertan datza eta zergatik da berritzailea aipatutako proiektua?



Egunero-egunero, hainbat ezagutza bereganatzeaz gain, ikasleari bizitzan sortu dakizkiokeen egoerei aurre egiteko, konpetentziak bere kabuz lortzen lagunduko die ikastolak. Alegia, bizitzan zehar agertu edota sortuko zaizkion problema-egoerak konpontzeko, aproposak diren gaitasunak eskuratuko ditu ikasleak. Hala, ikastolan planteatu eta landu beharko dituen egoerak baliagarriak eta esanguratsuak izango zaizkio ikasleari bizitzan.



OTEITZAK HAMALAU APOSTOLU ARANTZAZUN!

ETA GUK?



NIRE POXPOLINA!



LABORATEGIAN...

KIMIKA ERE BAI!

DENA EZ DA FISIKA!



GUK ERE EGINGO DITUGU KILOMETROAK!



HAU DA MARKA, HAU! ENTZUTEN IKASTEKO, BELARRIAK ESTALI BEHAR!



ZURE AITA IRAKASLE ONA DA!



OSTIRALA IRITSI DA...

Irakaslearen eta ikaslearen rola erabat aldatzen dira proiektu horretan. Ikaslea prozesuaren erdigunean kokatzen den eragile aktiboa da, eta pertsona bezala garatzeko, bere kabuz hainbat kompetentzia lortzen joango da gidari-laguntzaile den irakaslearen laguntzaz.

BAINA EZ DUGU IKASTOLAN BAKARRIK IKASTEN...



KONTXAN, AURTEN BAI!

Integrazioaren pedagogian oinarritzen da. Metodologia iraultzaile horretan, guztiak dira hizkuntza irakasle, guztiak dira matematika irakasle...



EGUNEKO ZENTROAN...

ZIRELAKO GARA!

GARELAKO IZANGO DIRA!



FLYSCH-PATU EGIN DUT HONEKIN!



Ikasleen sormena areagotzea da beste helburu nagusienetakoa. Izan ere, ebatzi behar dituzten egoera-problema ezberdinei irtenbide egokiak ematen saiatu behar dira ikasleak, eta, horretarako, nahitaezkoa da sormena lantzea.



kutxa